

Euskal Herriko Ahotsak
ahotsak.com

Euskal Udalekuak: Zarauzko topaketa

*Zarautz,
Gipuzkoa*

Aurkibidea



Biografia

Euskal Udalekuetan lanean ibilitako gizon-emakumeen oroitzapenak jaso genituen Zarautzen eginiko topaketa honetan.



Elkarrizketatutako partaideak:
Roberto Chico, Aingeru Ezkerra, Oier Agirresarobe, Iban Burgaña, Patxi Galarraga, Asier Mendizabal, Iñaki Otamendi, Patxi Mujika, Rafa Apeztegia. Xabier Etxabe, Josu Galarraga, Larraitz Garmendia, Xabier Legorburu, Jon Burgaña, Susana Arevalo eta Leire Garate.

Zintak

ZAR-169

- **Proiektua:** Antzin eta Urdirozko udalekuen historia
- **Elkarrizketatzailea(k):** Elexpuru, Juan Martin - Plazaola Otadui, Estepan
- **Data:** 2013-03-02
- **Iraupena:** 63 min
- **Euskarria:** Bideo digitala

Pasarteak

1. Urdirutz basatia

- **Erref:** ZAR-169/003
- **Iraupena:** 0:01:03. **Hasi:** 00:01:48. **Bukatu:** 00:02:51
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

Laburpena:

Roberto Chico. Urdirutz hitz batekin definitu beharko balu, "basatia" zela esango luke; mendi artean, erreka, baliabide gutxi... Kontraste handiko lekua zen; etxe barruko iluntasuna eta kanpoko eguzki eta beroa.

2. Urdirozko paisaia ederra

- **Erref:** ZAR-169/005
- **Iraupena:** 0:00:52. **Hasi:** 00:03:10. **Bukatu:** 00:04:02
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

Laburpena:

Aingeru Ezkerra. Natura aldetik, zoragarria zen Urdirotz. Eskualde ezberdinetako euskalkiak entzutea gustoko zuten.

3. Urdirotz ixteko arrazoiak

- **Erref:** ZAR-169/011
- **Iraupena:** 0:01:56. **Hasi:** 00:07:38. **Bukatu:** 00:09:34
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):**Laburpena:**

Oier Agirresarobe. Hasieratik bukaerara aldaketa handia gertatu zen exigentzia eta gurasoen eskakizun mailan. Ikusi zuten Urdirotzek ez zituela betetzen garai horrek eskatzen zituen segurtasun-neurriak bermatzeko baldintzak. Azken urteetan zuzendari tituluak eskatzen ziren. Berak titulua bazeukan, baina ez zuen nahi izaten erabiltzerik, ekarri zitzakeen ondorio guztiengatik.

4. Hamabostaldi tematikoak Urdirotzen

- **Erref:** ZAR-169/013
- **Iraupena:** 0:03:03. **Hasi:** 00:11:15. **Bukatu:** 00:14:18
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):**Laburpena:**

Iban Burgaña. Hasieran planteamendu klasikoa zuten. Baina gero norbaiti bururatu zitzaion txanda gai baten inguruan antolatzea. Horietako bat euskal mitologian oinarritutakoa izan zen. Beste batean berdina egin zuten, baina Asterix eta Obelix pertsonaiekin. Txanda borobildua geratzen zen honela.

5. Oroimenaren garrantzia

- **Erref:** ZAR-169/015
- **Iraupena:** 0:03:25. **Hasi:** 00:15:55. **Bukatu:** 00:19:20
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):**Laburpena:**

Patxi Galarraga. Bere ustez helburua izan beharko litzateke Urdirotzi buruzko oroimen horiek bihurtu daitezela aldaketa edo ekintzarako indar. Han ume edo begirale bezala egon denak, gogoratu dezala ze zoriontsu izan zen eta ze potentzia daukan oroimen horrek. Hura berreskuratzeko halako borroka bat egin beharko litzatekeela iruditzen zaio. Urdirotzen ezer ez zegoen eta sortu egin behar ziren gauzak. Bere umeentzako antzeko zerbait lortu nahiko luke, baina gaur egun ez da erraza. Naturarekin kontaktua edukitzeak eta errekurtsio gabe egoteak eramaten gaitu harremanak oso zuzenak izatera, bitartekoak kentzen ditugulako. Horrek halako hurbiltasun bat ematen dizu ondokoarekin.

6. "Riau riau" euskaraz

- **Erref:** ZAR-169/018

- **Iraupena:** 0:01:15. **Hasi:** 00:21:46. **Bukatu:** 00:23:01
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

Laburpena:

Aingeru Ezkerra eta Asier Mendizabal. Leitzako apaizak, Jose Javier Aizkorbe goizuetarrak, egin zuen "Riau riau"-aren letra euskaraz. Urdirutzen ospatzen zuten uztailaren 6an. Abestia abesten dute.

7. Beste udaleku batzuekin konparaketa

- **Erref:** ZAR-169/020
- **Iraupena:** 0:04:37. **Hasi:** 00:24:49. **Bukatu:** 00:29:26
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

Laburpena:

Iñaki Otamendi. Oso ezberdina zen Urdirotzeko udalekua. Begiraleen arteko giroa, udalekura joateko ilusioa, eta nolabait udalekuarekiko lotura emozional potente hori. Lekua oso berezia, ehuneko ehunean natura. Hogeitalau orduak euskal giro batean murgilduta. Nabarmenezkoa zen begiraleen eta sukaldarien arteko harremana; eta baita begiraleen eta haurren artean zegoena ere. Disfrutatu egiten zuten harreman horrekin. Horretan ere ezberdina zen beste udalekuekiko.

8. Urdirotzeko txanda bakoitzaren autonomia

- **Erref:** ZAR-169/022
- **Iraupena:** 0:02:08. **Hasi:** 00:29:38. **Bukatu:** 00:31:46
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

Laburpena:

Iñaki Otamendi. Urdirotzeko hiru txandak elkarren artean burbuja autonomoak ziren. Txanda bakoitzak hartzen zuen bere dinamika, bere jarduerak edo helburu propioak markatzen zituen. Asanblean funtzionatzen zuten. Urte batean bakarrik ezagutu du zuzendaria.

9. Baliabide gabeziak, norbere balioa erakustarazi

- **Erref:** ZAR-169/024
- **Iraupena:** 0:01:36. **Hasi:** 00:33:22. **Bukatu:** 00:34:58
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

Laburpena:

Patxi Mujika Ezkurra. Urdirotz udaleku oso berezia zen. Han diruak ez zuen balio, dendarik ez zegoen, argia ere ez zegoen... Umeek bere balioa han azaltzen zuten. Ume pila bat egon da udalekura ume bezala joan direnak, eta gero bai begirale bezala, bai sukaldari bezala jarraitu dutenak.

10. Euskara eta natura oinarri Urdirutzen

- **Erref:** ZAR-169/027
- **Iraupena:** 0:01:20. **Hasi:** 00:37:25. **Bukatu:** 00:38:45
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

Laburpena:

Rafa Apeztegia. Natura eta euskara helburu zituen astialdiko talde batean zebilen begirale gisa. Alde horretatik ez zitzaion Urdirutz arrotza egiten. Baina gero konturatu zen hura beste gauza bat zela; beretzat jarraipen bat izan zen bere jardueran, baina garrantzitsua.

11. Urdirotzek egindako ekarpenak

- **Erref:** ZAR-169/029
- **Iraupena:** 0:04:03. **Hasi:** 00:40:13. **Bukatu:** 00:44:16
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

Laburpena:

Xabier Etxabe. Beretzat Urdirotzek egindako ekarpen handiena zeukan estiloa da. Ziur asko beharragatik edo errekurtsio faltagatik izango zen, baina hainbat balio edo erakutsi sortu zizkien. Ura neurtu egin behar zen, argindarra ere bai, etxea baserri abandonatu bat zen... Denborarekin, gaurko eskakizunak ikusita, ezin zen horrela jarraitu. Gaur egun ezinezkoa iruditzen zaigu horrelako udaleku bat, eta hala ere posible zen. Hori da hurrengo generazioari esan beharko zaiona: teknologiarik gabe hamabost egun zoriontsu pasa litezkela.

12. Aurizberriko kanpinera ibilaldia

- **Erref:** ZAR-169/031
- **Iraupena:** 0:02:10. **Hasi:** 00:45:19. **Bukatu:** 00:47:29
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

Laburpena:

Larraitx Garmendia eta Josu Galarraga. Beren txandan Aurizberriko kanpinera joaten ziren gau bat pasatzera; egun batean joan (oinez) eta hurrengoan etorri. Oso ondo pasatzen zuten, igerilekuan bainatzen eta abar. Argiñanoren alabak arraultza friji zezala nahi izaten zuten. Bidean ziza-leku bat aurkitu zuten eta zizekin errebueltoak egin izan zituzten hainbat aldiz. Erosketekin, telefonoekin edo zigarroekin arazotxo batzuk izaten zituzten, baina oso ondo pasatzen zuten.

13. Urdirutzen antolaketaren bilakaera

- **Erref:** ZAR-169/033
- **Iraupena:** 0:02:37. **Hasi:** 00:48:56. **Bukatu:** 00:51:33
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

Laburpena:

Xabier Legorburu. Lehen aldiz Urdirutzera joan zenean, bezperan ezagutu

zituen lankideak eta hurrengo egunean Urdirotzen bertan zeudenean hasi ziren ekintzak antolatzen. Hasierako urteetan inprobisazio maila horretan funtzionatzen zuten. Urteak aurrera joan ahala, hori aldatzen joan zen eta beste seriotasun batekin hasi ziren antolatzen. Begirale bakoitzak gutxienez bi egun antolatu behar zituen. Gainera, eguraldi txarrari begira ere badaezpada beste egun bat antolatzen zuen.

14. Txikitan udalekuan bizitakoak, bere izakeraren oinarri

- **Erref:** ZAR-169/035
- **Iraupena:** 0:03:03. **Hasi:** 00:52:50. **Bukatu:** 00:55:53
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

Laburpena:

Jon Burgaña. Bizikizun benetan zoriontsuak eta garrantzitsuak izan ziren udalekuetakoak. Bertan ikasitako eta bizitako hainbat joku, abesti, ibilaldi... gerora bera den modukoa izatera eraman dute. Txikitatik sortzen da halako kimua, gerora hazten joan dena.

15. Gauetan gurasoen falta, begiraleek bete behar

- **Erref:** ZAR-169/037
- **Iraupena:** 0:00:39. **Hasi:** 00:57:23. **Bukatu:** 00:58:02
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

Laburpena:

Susana Arevalo. Gauetan umeentzako hutsune handia da gurasorik gabe egote hori. Eta gauero logeletan begirale bat sartzen zen kandelatxoarekin, eta hurrei ipuina kontatu edo kitarrarekin abestu egiten zien.

16. Urdirotz itxi izanaren tristura

- **Erref:** ZAR-169/039
- **Iraupena:** 0:01:10. **Hasi:** 00:59:10. **Bukatu:** 01:00:20
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

Laburpena:

Leire Garate. Azken urteetan egon zen Urdirotzen eta dagoeneko etxearen segurtasunagatik zalantzak izaten hasiak zeuden. Itxi izanak tristura sortzen dio. Bi urtez bakarrik egon zen han, baina oroitzapen oso polita dauka. Hain gauza gutxiarekin nola pasatzen zuten hain ondo.

Ahotsak.eus-eko edukiarekin sortutako dokumentu automatikoa.

2026-08-14

CC-by-sa | Ahotsak.eus

Badihardugu Euskara Elkarte

Markeskua Jauregia, 20600 Eibar

943121775 - ahotsak@ahotsak.com